

Bazterreko gogoetak Asturiaseko soziolinguistikaren inguruan

Xulio Viejo Fernández

Universidá d'Uviéu (Oviedoko Unibertsitatea)

jviejo@uniovi.es

Jon Alonso

Itzultzailea

jalonso075@ikasle.ehu.eus

Sarrera-data: 2016-09-06 | Onartze-data: 2016-09-30

Laburpena. Asturiaseko soziolinguistikaren azterketa azken hamarkadetako hizkuntza-aldarrikapenaren mugimenduarekin batera garatu da, eta, funtsean, planteatutako hizkuntza-politikei buruzko erabilera, identitate-kontzientzia eta jarreraren inguruko estimazio kuantitatiboak dituen inkestetan oinarritu da. Modu horretan, ikuspegi soziologiko zehatz bat deskribatu du, neurri handi batean hizkuntzaren inguruko debate publikoko terminoen bitartez adierazitakoa, baina, agian, ez du ikuspegi hori behar bezain sakon deskribatu gako garrantzitsuen berri emateko. Kontu horietako batzuk teoria soziolinguistikoa formulatu baino askoz lehenago planteatu ziren, inplizituki edo bakar-bakarrik hizkuntzaren inguruko gogoeta intelektualetan zein dialektologia tradizionalako lanetan, baina, ordea, ez dira era intuitiboan edo anbiguoan lantzen gaur egungo hizkera soziologikoan. Ezaugarri horiek lantzen hasteko, lan honetan aztertuko dugu (gaur egungo inkestetako datuei jarraikiz) asturieraren egoera egungo errebindikazio-hitzaldiak agertu baino aurretik, baita Asturiaseko gaztelaniaren hedapen eta finkapenaren une gorenean ere, hau da, gerraurreko garaian, asturieraren transmisioak behera egin zuen unean, hain zuzen. • *Hitz gakoak:* Asturias, hizkuntza-ordezpena, diglosia, XX. mendea.

Abstract. The sociolinguistic analysis of Asturias has developed alongside the movement proclaiming the language over the last few decades and, basically, is underpinned by the surveys that offer quantitative estimations about the use of language policies proposed, identity awareness and attitudes. That way, a specific sociological perspective has been described, largely expressed through terms of the public debate on the language. However, that perspective may not have been described in sufficient depth to come up with important keys. These keys correct the internal perception of the Asturian language, its use according to the context, its transmission from one generation to the next, its hybridization with respect to Castilian Spanish and the code switching linked to many values of social identity. To begin to work on these characteristics, this work (following the data provided by current surveys) will be exploring the situation of the Asturian language before the emergence of the current demand discourses. That way, the historical keys and, in the end, the psychological ones will also be found in the language awareness recorded. •

Key words: Asturias, language switching, diglossia, 20th century.

Asturiaseko soziolinguistikaren azterketa azken hamarkadetako hizkuntza-aldarrikapenaren mugimenduarekin batera garatu da. Testuinguru honetan, analisi bat egiteko zein deskribatutako errealitateari lotutako aurreikuspenak eta konpromisoak betetzeko erreminta gisa erabilia, Asturiaseko soziolinguistikak, agian, hizkuntza-politiken inguruko debateetan argumentuak emateko beharra azpimarratu du, eta ez du oraindik erreferentzia-esparru koherenteren bat finkatu asturieraren existentzia sozialaren inguruko kontu garrantzitsuak lantzeko.

A priori, Asturiaseko soziolinguistikak herrialdeko hizkuntza-erabilerei edo hizkuntza-aldaerei dagokien esparrua definitu beharko luke ezer baino lehen, eta horretarako, kontuan hartu beharko lirateke hizkuntza-aldaeretako eta erregistroetako barne-artikulazioaren gakoak zein gaztelaniarekiko kontaktua eta hibridazioa. Kasu horretan, hizkuntza-ekosistema horren barruko jarrera aztergarriei dagozkien beste hainbat aspektu aurkituko genituzke; horien artean, aipatzekoak dira eredu arauemailetako edo testu-ereduetako pertzepzio sozialak, normalizazio-prozesuan garrantzitsuak direnak. Hitzunek eredu horiengan duen onargarritasun-mailak baldintzatzen du, neurri handi batean, hiztunaren beraren enpatia hizkuntza-aldarrikapenarekiko.

Kontu horietako batzuk teoria soziolinguistikoa formulatu baino guztiz lehenago landu ziren, eta horrek aditzera ematen du bere oinarri historikoa zein garrantzia Asturiaseko hizkuntza-kontzientziatik datorrela. Jada XVI. mendetik aurrera, hainbat autorek (Luis Alfonso de Carvallo, besteak beste) gaztelaniaren indarra prestigiozko hizkuntza gisa ikusten zuten; asturierari dagokionez, ordea, atzeratuta edo *ustelduta* zegoela ikusten zuten, eta, horretarako, hizkuntzaren beraren jatorrizko garbitasun faltsua islatzen duen irudi idealizatu bat hartu zuten abiapuntu-tzat. Aitzitik, XVII. mendean, Antón de Marirregueraren antzerki lan batek hizkuntza eta identitate sozialaren arteko erlazio garden bat erakutsi zuen; izan ere, lanaren pertsonai popularren asturierak estatus faltsu bat erakutsi nahi duen norbaiten gaztelania itxuratiaren eta hun-kigarriaren aurka egin zuen (Viejo 2002).

Mende bat geroago, Jovellanos-ek bere garaiko hirietan gertatutako gaztelaniarekiko hibridazioa deskribatu zuen modu esplizituago batean (D'Andrés Díaz, 2002: 32), eta nabarmendu zuen bazegoela, asturieraren tokiko aldaerez gain, hizkuntzaren pertzepzio bakar bat (Jovellanos, 1981: 68). 1893. urtean, José Cavedak sakondu zuen asturiera atzeratuta zegoela hirietan eta gazteen artean, eta arrazoiak ziren, besteak beste, hezkuntza, zerbitzu militarra edo emigrazioa. Berak onartu zuen astu-

**Asturiaseko
soziolinguistikak
herrialdeko
hizkuntza-
erabilerei edo
hizkuntza-
aldaerei
dagokien
esparrua definitu
beharko luke ezer
baino lehen, eta
horretarako,
kontuan hartu
beharko lirateke
hizkuntza-
aldaeretako eta
erregistroetako
barne-
artikulazioaren
gakoak zein
gaztelaniarekiko
kontaktua eta
hibridazioa.**

**Meléndez
Pidalek
Asturiaseko
egoera itxuratu
zuen
galizierarekin
antza duen
elebitasun
diglosikoko
egoera gisa, eta,
horrela, ezeztatu
zuen hegoaldeko
aldaerek
dialektoak
edukitzea, gaizki
erabilitako
gaztelaniatzat
hartu zirenak.**

riera bere garaira ailegatu zela “bere jatorrizko izaerari kalte egin diezaioketen aldaketa sakonik gabe”, nahiz eta (hona hemen XIX. mendeko eliteen ideologia) “gure gaur egungo gizartearekin bat egiten ez duen, baizik eta haiengandik oso urrun dagoen gizarte batekin, kultura eta gustu ona urgentziaz behar duena”. Hori dela eta, “ahots eta esaldi horiek guztiak, antzinean ezagunak probintzia osoan, bakarrik erabiltzen dira gaur egun gehitutako herrietatik kanpoko toki eta baserrietan”, baina “oraindik ere, herrixketan erabiltzen da” (Caveda, 1989: 1-2, 59-60), bereziki herrietako biztanleria ikaragarri handia denean.

Aldaeren lehenengo ikerketetan, aldaera geografikoei erreparatu zitzairen batez ere, eta, aurretik aipatutako asturieraren debatearen inguruan, aipamen asko eta asko egin ziren bere osotasuna, zatiketa nahasi eta ia gaindiezin baten mesedetan, zalantzan jarri zenean gaztelaniaren agerriaren eraginez. Ake W. Munthe suediarrek mota horretako lehen plan teamendua bideratu zuen 1887an. Izan ere, urte horretan ikerketa bat argitaratu zuen mendebaldeko aldaeren inguruan, eta, bertan, honako ezaugarri hauek nabarmendu zituen: gaztelaniaren zabalkundea (herri txikiak udaldira barne), asturieraren zatiketa eta beste hainbat maila asturieraren tokiko erabileretan, betiere kontuan hartuta nola onartu ziren gaztelaniaren hedapen-ezaugarriak (Munthe, 1987: 15-16).

Idazle horiek guztiek, gutxi gorabehera zeharkako modu batean, garai horretan zalantzarik gabe gertatzen hasi ziren hainbat prozesu sozial aipatu zituzten. Aparteko kontua da gaztelaniaren hedapen horren benetako indarra, bai eta hedapen horren erritmoa, finkatzeko modua zein hedapenaren inguruko hitzaldien eta jokabide sozialen indarra ere.

Tokiko idazleek egindako aldaeren deskribapenak ikuspuntu guztiz nabarmenduago bat eman zuten. 1906. urtean, Meléndez Pidalek Asturiaseko egoera itxuratu zuen galizierarekin antza duen elebitasun diglosikoko egoera gisa, eta, horrela, ezeztatu zuen hegoaldeko aldaerek dialektoak edukitzea, gaizki erabilitako gaztelaniatzat hartu zirenak (García, 2008). Pidalek ez zuen asturieraren batasuna zalantzan jarri, eta, horrez gain, 1911. urtean egindako baina argitaratu gabeko inkesta batean adierazi zuen, asturieraren aldaeren deskribapen zehatz batekin batera, Asturiaseko erdialdean hainbat konponbide finkatu zirela, eta, bat-batean, izaera erreferentziala eta bateratzailea hartu zutela.

Diego Catalánek irakurri zituen Pidalek 1911n egindako datu horiek, eta 50eko hamarkadan Asturiaseko mendebaldeari buruz egin zituen lanetan aipatzen dira (1956: 90). Lan horiek, Rodríguez Castellanos

(1954) eta Menéndez García (1963) egindakoekin batera, adierazi zuten, soziolinguistikari lotutako apunte laburrez baliatuz, tokiko hizkera bizirik zegoela eta gaztelania ofizialarekin lehian zeuden Oviedoko influentziak zeudela. Askotan, gaztelania erregistro itxuratizat hartu zen, Marirreguerak bere antzerki lanean erakutsi zuen antzeko moduan.

Avant la lettre delako soziolinguistikaren ariketarik nabarmenena Catalánek eta Galmesek erakutsi zuten 1946an, Asturiaseko ekialdean /f/ hotsa galtzen dela aztertu zutenean. Hori egitean, adierazi zuten gaztelania eta, batez ere, erdialdeko asturiera ondo komunikaturik zeuden komunitateen artean eta gazteek osatutako belaunaldien artean finkatu zela. Hala ere, ikuspuntu berritzaile horrek ez zuen iraupen handirik izan, nahiz eta hainbat kontu, besteak beste hizkuntzaren batasuna edo hizkuntzak ez zuela *prestigiorik*, asturieraren debatearen gairik nagusienak izan diren.

Soziolinguistika garatu berriaren gako eta termino batzuk Josefina Martínezek egindako lan batean agertu ziren lehen aldiz 1967an. Lan horretan, hiriburuaren egoera frankismoan asturiera eta gaztelaniaren arteko *disglosia* gisa bereizi zen. Horri gehituta, bi hizkuntza horien arteko hibridazioa aztertu zen lanean, eta gaztelaniaren eragina jasotako hiriko modeloak aldirietako asturieraren biziraupen-maila altuarekin kontrajarri zen. Hala eta guztiz ere, metodo soziolinguistikoak ez ziren azterketetan bene-benetan aplikatu bi hamarkada pasa arte. Ramón d'Andres-en (1993) lanari buruz ari gara, alegia, non Gijóneko aldirietako ingurunea landu zen. Handik aurrera, beste hainbat lan (eduki eta ikuspuntu ezberdinekoak) landu ziren, baina ez zuten sekula korpus homogeneoren bat landu, ez eta Asturiaseko soziolinguistikako gako inguruko hitzaldi sendoren bat definitu ere.

Badirudi azken urteko azterketaren aztergaia *hizkuntzaren soziologia* izan dela *hizkuntzaren soziolinguistika* baino: hizkuntzarekiko jokabide sozialak aztertu dira, alegia, bai ikuspuntu historiko batetik (Rodríguez Valdés, 2009), bai aplikaturiko ikuspuntu batetik (González Riaño, 1994). Edozein kasutan, erreferentzia nagusiak politikari daude lotuta: hain zuzen, erabilera-diagnostikoetarako erabili diren inkestak, bai eta hizkuntza zein hizkuntza-politikekiko jokabide sozialak aztertzeke erabili direnak ere. Adibide gisa, SADEIk 1984an argitaratutako inkesta dugu, eta, horrez gain, Llera Ramok 1991ean, 2002an eta 2005ean egin zituenak. Izan ere, urteotan aurretik aipatutako lanen datuak eta interpretazioak hizkuntzen inguruko debatearen oinarria izan dira, eta kontuan hartu dira erabilera zein errebindikazioaren aldeko jokabideen inguruko estimazio

Erreferentzia nagusiak politikari daude lotuta: erabilera-diagnostikoetarako erabili diren inkestak, bai eta hizkuntza zein hizkuntza-politikekiko jokabide sozialak aztertzeke erabili direnak ere.

Beharrezkoa da galdera honi erantzuna bilatzea: zer da asturieraz hitz egitea? Eta galderaren erantzuna bi zentzutan bilatu behar da: barne-hizkuntzalaritzak egokitzen digun karakterizazio tipologikoaren eta soziologikoaren zentzuan.

kuantitatibo hotzak; horrez gain, emaitza horien ondorioak eta metodoak eztabaidan jarri dira. Modu horretan, inkesta horietan adierazten da ofizialtasunari eusten zaiola gehienbat, eta hori legezketasun demokratikoko iturritzat hartzen da hizkuntza-aldarrikapenari dagokionez. Hala ere, inkestek bat ez etortzea eta hurrenez hurrengo hauteskundeetako emaitzak (ofizialtasunaren kontra dauden alderdiak bermatzen dituztenak) argumentu onak dira inkestei berei garrantzia kentzeko. Beraz, argi dago testuinguru zehatz horretan ezinezkoa dela mota horretako azterketa baten balioa argitzea.

Hortaz, badago azterketa soziolinguistikoari zentzu militantea emateko arriskua, eta gizarte-ekintzetan esku hartzeko datu erabilgarriak soilik edukitzea *inperatiboa* izatea, eta ez *ohikoa*. Nolabait, egoera inperatibo hori azterketa zientifikoaren parte izan liteke. Izan ere, datu batzuen inguruko hitzaldi bat *a posteriori* prestatzetik metodoei eta prozedurei kalte egiten dieten aurreiritzi batera pasatzen garenean, azterketaren ondorioak fidagarriak ez izateko arriskua egongo da. Hori dela eta, *Academia de la Llingua Asturiana* (Asturiar Hizkuntzaren Akademiak, hain zuzen) inkesta batzuk bideratu zituen Leonetik gertu zeuden tokitan 2006an (González Riaño & García Arias, 2006). Helburua zen Asturiaseko hizkuntza-kontzientziarekin antza handia zeukaten elementuak bilatzea. Inkestetan, bi galdera egin ziren: alde batetik, *badauka hemengo hizkerak antza handia Asturiaseko hainbat tokitako hizkerarekin?*; eta, bestetik, *hemengo hizkera tradizionala, gaztelaniarekin alderatuta, ezberdina al da?* Lehenengo galderari dagokionez, 176k *gutziz ados* erantzun zuten, eta 125ek *nahiko ados*. Bigarrenari dagokionez, aldiz, 223k *gutziz ados* erantzun zuten, eta 81ek *nahiko ados*. Ondorio gisa, esan liteke Leoneko hiritarrek asturierarekin bat egiten dutela gehienbat, bai eta gaztelaniarekiko urruntasuna dagoela ere. Hala ere, eta zoritxarrez, suposatzen da hiztunak berak gaztelaniarekiko kideetasun handia erakutsiko lukeela galderak aldrebes formulatuko balira, bai eta hiztunak aitortuko lukeela bere eta asturiar baten hizkeraren artean zenbait ezberdintasun objektibo daudela ere.

Azken finean, mota horretako desorekak gertatzen dira asturieraren zein bere erabileraren pertzepzioa nahiko anbigua delako, eta, hortaz, *hizkuntzaren soziolinguistikan* zenbait gabezia daude. Lehen, erreferentzia-esparru argi bat eskatu zen aztertutako hizkuntzaren hiztun-kopuruen zentzuzko estimazio batekin, eta horixe bera da aurretik aipatutako inkestetan landu zen kontua. Hori egiteko, baina, beharrezkoa da galdera honi erantzuna bilatzea: zer da *asturieraz hitz egitea*? Eta galderaren erantzuna bi zentzutan bilatu behar da: *barne-hizkuntzalaritzak* egokitzen

digun karakterizazio tipologikoaren eta soziologikoaren zentzuan. Zentzu soziologikoari dagokionez, asturieraren erabilera kontzientea eta nahita egindakoa (testuinguruaren arabera) aztertzen da gaztelaniaren erabileraren kontrako sozializazio-eredu gisa. D'Andrés Díazek (2002) eta Fernández Lorencesek (2011) ez dituzte kontu horiek guztiak behar bezainbeste landu. Beste motako analisi kuantitatiboetan, *asturieraz hitz egiteari* dagokion nozioa ez da era intuitibo eta anbiguoan ia landu.

Baliteke hori nahiko ulergaitza izatea Asturiaseko testuingurutik kanpo, baina bi aldagaien arabera azal daiteke: gaztelaniarekin inolako antzekotasunik ez daukan hizkuntza propio bat hitz egiteari dagokion kontzientzia historiko gardena, bi hizkuntzen arteko hibridazio-egoera erreal baten bidez (nahiko handia eta hedatua) kontrastatuta dagoena. Egoera horren barruan, forma-irizpideen inguruko mugarriztatzea aukerako ariketa da, azken finean. Kontu horiek guztiek inkestaren metodologiari eragiten diote, eta azaltzen digute bi inkesta fidagarrienen (hau da, 1991ean eta 2002an egindakoek) emaitza guztiz ezberdinak erakusten dituztela, belaunaldi bereko pertsonen artean ere. Lehenengo inkestaren datuak positiboagoak dira: gerraostetik Trantsiziora arte jaiotakoen ikuspuntutik asturiera baldin bazen, gehientzat, berezko hizkuntza 1991ean, 2002an hizkuntza gutxitu bihurtu zen garai bereko pertsonen ikuspuntutik. Ezohiko hizkuntza-higadura baino, pentsatzen da desoreka hori hizkuntzaren pertzepzio sozialaren eboluzioari dagoela lotuta, eta baita hizkuntza hori aztertzeko moduari ere.

Azken kontu horri dagokionez, 1991ean galdetzean ea zein zen erabilitako lehen hizkuntza, bost aukera eman ziren: *asturiera* (%36), *gaztelania* (%32), *biak* (%6), *bien arteko nahasketa* (%24) eta *beste batzuk*¹. Beraz, biztanleriaren %66ren lehen hizkuntza (*mutatis mutandis*) asturiera zen. Hala ere, galdetu zenean ea zein zen *norberaren burua adierazteko hizkuntzarik errazena*, %47k *gaztelania* erantzun zuen, eta %30ek, aldiz, *asturiera*. %16k *biak* erantzun zuen, eta %6k *testuinguruaren arabera*. Horrek erakusten du *bien arteko nahasketa* aukeratu zuten gehienak *gaztelania* aukerara pasatu zirela, eta *biak* aukeraren emaitzak ere pixka bat gehiago handitu zirela. *Asturiera* aukeraren emaitzek, hala ere, behera egin zuten. Orduan, nola antzeman zuen hiztunak *bien arteko nahasketa* hori? D'Andrések hirietako aldaera *Asturiano Mínimu Urbanu* gisa (hiriko gutxiengo asturiera) definitu zuen. Nahiz eta eredu arauemailearekin antzekotasunik ez izan, asturiera bezala antzeman daiteke dudarik gabe maila baxuagoko aldaera batzuen aldean, adibidez, *gaztelaniaren ezaugarriak dituen asturiera* edo, beste hitzetan, *asturiera gaztelaniaduna*. Hala ere, eta 1991eko datuei jarraikiz, biztanleriaren ia laurden batek esan zuen *bien*

Baliteke hori nahiko ulergaitza izatea Asturiaseko testuingurutik kanpo, baina bi aldagaien arabera azal daiteke: gaztelaniarekin inolako antzekotasunik ez daukan hizkuntza propio bat hitz egiteari dagokion kontzientzia historiko gardena, bi hizkuntzen arteko hibridazio-egoera erreal baten bidez (nahiko handia eta hedatua) kontrastatuta dagoena.

Nahiz eta aldaketa sakonik ez egon biztanleriaren hizkeran, aldi horretan autonomia-gobernuko lehenengo hizkuntza-politiken beherakada hasi zen; horrez gain, aldarrikapen-mugimenduek garrantzi handia hartzen hasi ziren, eta eredu arauemaile zein testu-ereduen irudi soziala, Surdimientu (Sorrera) deritzon garaian agertutakoa, finkatu egin zen. Beste hitzetan: asturiera gisa antzeman behar den definizio estuago baten agerreraren aldia da, non hibridazioek legezotasuna galtzen duten.

arteko nahasketa bat erabiltzen zuela, baina laurden horretatik, dirudienez, erdia baino gutxiagok ez zeuden nahasketa hori *asturieraren* kontzeptu minimo baten barruan sartzeko prest.

2002an, *bien* arteko nahasketa aukera inkestatik desagertu zen, eta *lehen* hizkuntza aukeraren emaitzak (*etxeko* hizkuntza eta *hizketan hasterakoan* erabilitako hizkuntza aukeretan bikoiztuta) honako hauek izan ziren: 1942an baino lehen jaiotakoen %47k *gaztelania* aukeratu zuen; %27k, aldiz, *asturiera*; eta %23k *biak*. Bestalde, frankismopean jaiotakoen %60k *gaztelania* aukeratu zuen, %15ek *asturiera* eta %18k *biak*.

Inkestetako datuen arteko ezberdintasun horren arrazoia ez da hamarkada bateko sekulako higadura, ez eta *bien* arteko nahasketa aukera eza-batu izana ere, zeinari esker erdal hitzun ustezkoen %60ren zati bat eroso sentituko zen, ziur aski. Helburua ez da inkestari balioa kentzea (agian 1991ekoa baino errealistagoa), baizik eta honako ezaugarri hau azpimarratzea: nola *asturiera* gisa ulertu behar den definizio estuago batek (*bien* arteko nahasketa aukera horren babesik gabe, *asturiera* aukeraren funtzio berdina betetzen duena zentzu idiomatikoa eta identitateari lotutako zentzuan) izugarritzko higadura eragiten duen hiztunaren hizkuntza-kontzientzian.

Horrek 1991etik 2002ra arteko tartean gertatutako hizkuntza-kontzientziaren ustezko beherakadaren inguruko beste gogoeta bat dakar: nahiz eta aldaketa sakonik ez egon biztanleriaren hizkeran, aldi horretan autonomia-gobernuko lehenengo hizkuntza-politiken beherakada hasi zen; horrez gain, aldarrikapen-mugimenduek garrantzi handia hartzen hasi ziren, eta eredu arauemaile zein testu-ereduen irudi soziala, *Surdimientu* (Sorrera) deritzon garaian agertutakoa, finkatu egin zen. Beste hitzetan: *asturiera* gisa antzeman behar den definizio estuago baten agerreraren aldia da, non hibridazioek legezotasuna galtzen duten. Modu horretan, inkestatutakoek euren hizkuntza-gaitasunak ebaluatu zituzten agertutako eredu erreferentzialaren arabera. Gainera, inkestatutako pertsonen zati nabarmen batek identifikatzeko gaitasunak galdu zituzten eredu horrekin. Korolario positibo gisa, ondoriozta dezakegu hizkuntza-politikek (onek edo txarrekin) eta hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialek erakusten dutela benetako talka nabarmena zegoela hiritarren hizkuntza-kontzientzian.

Har ditzagun frogatzat Asturiaseko mendebalde urruneko datuak. Eskualde hartako hizkuntza, trantsizio ohiko testuinguru batean, galzie-raren aldaeratzat hartu da historikoki. Aldaera horrek, tipologikoki, an-

tza handia dauka galizierarekin, eta jendeak hizkuntza horrekin lotu zuen arazo handirik gabe. 80ko hamarkadan Galiziako ideologia-korronteak eragindako tokiko errebindikazio bat piztu zen, eta errebindikazio horrek, erreakzio gisa, Asturiaseko nazionalismoan oinarrituriko esfortzu diskurtsibo bat bideratu zuen (bai eta beste hizkuntza gutxituekin oso sentiberak ez ziren beste sektore batzuk ere) demostratzeko hango *fala* (hizkera) ez zela galiziera, baizik eta hizkuntza erromaniko ezberdina eta, jakina, guztiz asturiarra. Errebindikazioaren eraginez, 80ko hamarkadaren amaieratik aurrera, izugarritzko polemikak piztu ziren komunikabideetan, inkestetan erakutsitako aldaketa aurrerakoi bati lotutakoak: 1991ean, galizieraren pertzepzio handia zegoen, eta 2002an, aldiz, asturierak garrantzi handiagoa hartu zuen. 1991ean (urte horretan, galiziera eta asturieraren arteko nahasketa batez mintzatzen zen biztanleen %66,8 zegoen), %11k baieztatu zuen galizieraren aldaera bat erabiltzen zuela, eta %9,5ek, ordea, asturieraren aldaera bat. 2002an, %7,7k hitz egiten zuen galizieraren aldaera (emaitza jaitsi zen, beraz), eta asturieraren aldaerari lotutako emaitza %16,3ra igo zen. Hizkuntza berdina zen.

Komunikabideetako debateak hiztunaren beraren hizkuntzaren inguruko analisiari kalte egiten badio, garrantzitsua da argitzea nola bizi zen asturiera polemika horiek gertatu baino aurreko garaietan, hau da, argitu beharra dago nolakoa zen egoera *jatorriaren* aldian. Garrantzitsua da honako arrazoi honengatik: gaur egungo hiztunen zati nabarmen batek berez jasotako irudi jatorrak euren hizkuntza-kontzientziaren sakontasun menderaezina dakar oraindik ere. Izan ere, hiritar horiek, inkesta bat betetzeari dagokion testuinguru batetik kanpo, ez dute ia sekula euren eguneroko hizkuntza-erabilerei oztoporik ezartzen (zentzu ideologikoan), edo ez dute euren burua mehetasun filologikoetan nahasten.

Soziolinguistika-analisi baten lehenengo pausua baldin bada aztertzea zenbatek hitz egiten duten asturieraz, *asturieraz hitz egitea* aproposa izanda gizartearen aldetik (eguneroko bizitzan adierazgarri bihurtzen duen kontzientzia bereizgarriaren bat islatzen duen neurrian), nondik dator hizkuntza hori? Nola erabiltzen zen protesta-hitzaldiak hedatu baino lehenago, edo komunikabideetako polemiketatik urrutien dauden sektoreen artean? Diglosia eta hibridazioko testuinguru batean, zer nolako neurgailu erabili beharko luke hiztunak erabakitzeko asturieratik gertuago dagoen edo, ordea, gaztelaniaren menderakuntzatik intuitiboki bera banatzen duen mugatik haratago dagoen?

Kontua da nola antzematen zuen asturiera gaur egungo hiztunaren aitonak, eta nola transmititzen zituen aitonak hizkuntza hori eta hizkuntza

80ko hamarkadaren amaieratik aurrera, izugarritzko polemikak piztu ziren komunikabideetan: 1991ean, galizieraren pertzepzio handia zegoen, eta 2002an, aldiz, asturierak garrantzi handiagoa hartu zuen.

**Soziolinguis-
tika-analisi
baten lehenengo
pausua baldin
bada aztertzea
zenbatek hitz
egiten duten
asturieraz,
asturieraz hitz
egitea.**

horren pertzepzioa seme-alabari familia- edo komunitate-eremu batean, betiere presio ofizialetik babestuta. Demagun, gainera, pertzepzio hori (eguneroko bizitzan balioztatuta bere gaztelaniarekiko izankidetasunarekin batera) garai hartan asko aztertutako hizkuntza-esperientzia bati dagokiola: Martínezek XX. mendearen erdialdean proposatutako Oviadoko hizkuntza-paisaiaren karakterizazioa ez da oso ezberdina Jovellanosek bi mende lehenago proposatu zuenarekin alderatuta. Horren ordez, asturierara eta gaztelaniaren arteko erlazioa denboran zehar hedatu zen oreka-mailarekiko antza handiagoa dauka, *diglosia iraunkorreko* testuinguru batean. Horrek gogorarazten digu hizkuntza-ordezpenaren prozesua Asturiasen nahiko motela izan zela orain dela gutxi arte, eta, horrez gain, handik aurki daitezke sakon aztertu ez diren (ez azterketa soziolinguistikoetan, ez asturierari buruzko hitzaldi publikoetan) hainbat gako soziolinguistiko.

Aspaldiko garaietako asturieraren pertzepzioaren azken emaitza zein den jakitea nahiko konplikatu da, beti egongo baita ezustean geratzen diren egoeren menpe. Garaiko metahizkuntzazko testigantza ugariak ere ez dute emaitza hori modu oso argian azalduko, haien anbiguetate eta eragozpen ideologikoak direla eta. Hala ere, behintzat, susmatzen dugu nolabaiteko garrantzia duela hizkuntza-kontzientzian, pertsona ororen esperientzia sozialari esker jasotakoa. Inkestek azken mende erdiaren eboluzioaren inguruko irudi sinesgarria erakusten digute, eta baita XX. mendearen erdialdean gertatutako gaztelaniatik asturierarako ordezpenaren gakoak ere. Puntu honetan, nire asmoa da aztertzea zer gertatuko zatekeen aurreko belaunaldietan, hau da, asturieraz hitz egiteari edo asturierara semei transmititzeari uko egin zioten lehen asturieraren gurasoen belaunaldietan.

1991eko eta 2002ko inkestak berriro egingo ditut, eta datuak gurutzatuko ditut beste aldagai sozial eta demografiko batzuekin. Nabarmendu nahi dut egingo dudan ariketa induktiboa eta garrantzi handikoa izango dela, eta ariketa horren abiapuntua bi inkestetan landutako irizpide ezberdinak homogeneizatzen saiatzea izango dela. Gainera, batez besteko aritmetikoz zein biribiltzez baliatuz, jatorrizko iturrian agertzen diren zehaztasun irregularreko datuen laburpen bat egingo dut. Irakurleak susmatuko duenez, azterketa hori borondatez egiteak eskatzen du Asturiaseko soziolinguistikaren *historiaurre*arekiko hurbilketa matematiko eskasa kontrastatzea, eta, horretarako, borondatezko testigantzetan edo norberaren hizkuntza-bizipenean sortu diren ikuspuntuetan oinarritutako hainbat intuizio erabiliko dira.

Irizpide orokor gisa, bi inkestetako datuak batuko ditut bi ezaugarri kontuan hartuz: hiztunaen jaiotza-datak eta historiaren aldetik aproposak diren belaunaldien arteko iritziak. Beraz, lau belaunaldi hauetan oinarrituko naiz: gerraurrea (1931tik 1942 eta 1945ra arteko garaiaren aurretik jaiotakoak, inkesta bakoitzaren agerraldiaren datarik gertuena kontuan hartuta), gerraostea (1942 eta 1945tik 1955 eta 1957ra arte jaiotakoak), Garapen Aroa (1975tik eta 1977ra baino aurretik jaiotakoak) eta Trantsizioa (1977tik aurrera jaiotakoak). Era berean, *lehen hizkuntza* aukeran oinarrituko naiz bakar-bakarrik, 2002ko eta 1991eko inkestetako *lehen hizkuntza haurtzaroan zehar* eta *etxeko hizkuntza* aukeren emaitzen batez bestekoaz baliatuz. Halaber, batez besteko aritmetiko baten bidez, *bien arteko nahasketa* eta *biak* aukerak batuko ditut *biak* aukera bakarrean, bi talde horien artean, orokorrean, hiztun elebidunak daudelako ustekizuna izanda. Belaunaldi bakoitzeko datu gordinak honako hauek dira:

1. taula: Lehen hizkuntza haurtzaroan zehar eta etxeko hizkuntza (batez besteko aritmetikoa).

	Gaztelania	Asturiera	Biak
Gerraurrean	39,5	36	24,5
Gerraostean	42,5	32,5	25
Garapen Aroan	46	21	30,6
Trantsizioan	70	9	21

Iturria: 1991. eta 2002 inkestak.

Emaitza horietatik at, ikus dezagun asturieraren benetako *aldaketa* demokraziaren garaian jaiotakoen artean gertatu zela, gutxi gorabehera 1950ean jaiotakoen seme-alaben artean, hain zuzen ere, eta preseski garai horretan, belaunaldien arteko transmisioa hondatu zen. Izan ere, belaunaldi horretan hizkuntza-transmisioaren aria apurtzeari eta 70eko hamarkadatik aurrera aldarrikapen-mugimenduak pizteari dagokion paradoxa agertu zen, hamarkada horretan guztiz garatu eta nagusitu zena. Horrela egiaztatzen da, beraz, Weinrich-ek aipatutako printzipio erreaktiboa, kontaktuan dauden hizkuntzen ingurukoa, eta baita normalizazioaren gaitzesleek sarri nabarmendutako paradoxa ere, hara, asturiera aldarrikatzen duten horiek ez dutela hizkuntza orokorrean erabiltzen.

Badaude, baina, ezaugarri nahiko interesgarriak honako belaunaldi honen azterketaren inguruan: jendea hirietara mugitu zenean, ekonomia

Diglosia eta hibridazioko testuinguru batean, zer nolako neurgailu erabili beharko luke hiztunak erabakitzeko asturieratik gertuago dagoen edo, ordea, gaztelaniaren menderakuntzatik intuitiboki bera banatzen duen mugatik haratago dagoen?

Ikus dezagun asturieraren benetako aldaketa demokraziaren garaian jaiotakoen artean gertatu zela, gutxi gorabehera 1950ean jaiotakoen seme-alaben artean, hain zuzen ere, eta preseski garai horretan, belaunaldien arteko transmisioa hondatu zen.

industrialean eta zerbitzuan lan egitea nagusitu zenean, hedabideetan sartzea erraztu zenean eta hezkuntza-mailak gora egin zuenean. Taulan, gaztelania elebakarraren gorakada nabarmena (erritmo nahiko jarraikian aurreko belaunaldiekin alderatuta) ez da ezaugarririk adierazgarriena, baizik eta asturieraren erabileraren beherakada izugarria (urte gutxitan biztanleriaren laurden batetik heren batek bakarrik erabiltzera pasatu baitzen). Handik atera daitekeen mezua ez da asturieraren transmisioa familien artean itsumustuan moztu dela (behintzat, ez aurreko belaunaldietan baino modu adierazgarriago batean), ez eta gaztelaniaren erabilerak gora egin duela ere. Asturieraz egiten dutenen kideek gehiengo osatzen jarraituko dute gaztelaniazko hiztun elebakarren aldean. *Asturierera* eta *biak* aukerak batuz gero, hona hemen ateratako emaitzak:

2. taula: Lehen hizkuntza haurtzaroan zehar eta etxeko hizkuntza: gaztelania eta elebiduna+elebarra (batez besteko aritmetikoa).

	Gaztelania soilik	Asturierera (elebiduna + elebakarra)
Gerraurrean	39,5	60,5
Gerraostean	42,5	57,5
Garapen Aroan	46	51,6
Trantsizioan	70	30

Iturria: 1991. eta 2002 inkestak.

Beste hitzetan: gehiengoak asturierera erabiltzen jarraitu zuen (mailen eta aldaeren arabera) Trantsizioa hasi arte, nahiz eta Garapen Aroan %6ko beherakada egon; horrek aurreko belaunaldi-aldaketaren %3 bikoiztu zuen. Hala ere, bi taulak debozioz aztertuz gero, ikusiko dugu gaztelania elebakarrak gora egin zuela aurreko mailetan bakar-bakarrik (%3,5), eta, beraz, aipagarriena da asturiar elebakarrak elebidunen taldera pasatu zirela.

Badaude beste aspektu adierazgarri batzuk. Urte horietan zehar jaiotakoen artean, %10ek baieztatzen dute *gaztelaniaz* eta *beste hizkuntza batez* hitz egiten dutela, eta hori mailarik altuena da adin-talde guztientzat. Industrializazio-garaian Asturiasera etorri ziren etorkinez ari gara, eta haien artean, ziurrenik, galiziarrek eta portugaldarrek garrantzi estatistiko handiagoa izan zuten. Talde hori gaztelaniazko hiztun elebakarren taldean sartzeari esker, imajina dezakegu zer nolako talka sortu zen etorkinen artean XX. mendearen erdialdeko asturieraren hizkuntza-paisaian, batez ere kontuan hartzen badugu beste gaztelaniazko

hiztun elebaker batzuk ailegatu zirela, eta hiztun horiek erdal hiztunen taldearen barruan sartu zirela².

Hala ere, ez dirudi talka horrek eraginik izan zuenik (ez berehalakoa, ez zuzenki proportzionala) asturieraren atzerakadan. Izan ere, elebarkartasuna eta elebitasuna (gaztelania eta asturiera, hain zuzen) aintzat hartzen baditugu, atzerakada globala ez da horren handia. Beste hitzetan: XX. mendeko erdialdearen hamarkadetan, asturieraren potentzia soziala handia nahikoa zen familia-hizkuntza gisa gaztelania edo beste hizkuntza batzuk zuten hiztunak beretzeko. Garai hartan jaio ginenok intuizioz ezagutzen genuen kontu zehatz batek nolabaiteko islapen estatistikoa izan lezake puntu honetan: hara, espainolen, andaluziarren edota galziarren seme-alabek nolabaiteko asturiera hibridatua erabiltzen zutela modu naturalean eta guztiz ohartuki, presio instituzionalek edota aldarrikapenari lotutako jarrerak bitartekaritarik egin gabe. Horrengatik, beste faktore batzuek (hezkuntzak edo komunikabideek, besteak beste) eragina izan zuten, aitzitik, aurreko belaunaldian gertatutako hizkuntza-atzerakadan, baina, hala ere, epe ertainean gertatutako imigrazioaren eraginak ere kontuan hartu behar dira.

Nondik dator asturieraren potentzia sozial hori? Zer dela eta beretzen ditu beste hiztun gehiago? Zergatik da bere buruaren ezaguera izateko gai? Zer dela eta garatu zuen finkatze-prozesu bati hasiera emateko gaitasuna frankismoaren amaieran, bere aldeko hiztunen babesa galdu zuenean? Erantzuna, berez, argi dago: asturiera *hitz egiten* delako, jakina; hau da, soziologiaren arabera, *ohartuki hitz egiten* delako sozializatzekeo estrategia eraginkor gisa. Eta horrek, soziolinguistikaren aldetik, honako hau esan nahi du: nahiz eta asturieraren existentzia soziala (gora egiten ari dena) gaztelaniarekiko hibridazioa izan, hiztunak bi hizkuntza horien artean ezberdintasuna dagoelako nozioa dauka: hara, asturiera gaztelaniaren ezberdina dela, bere jatorria beste bat dela, eta bere testuinguru zein funtzionaltasun propioa daukala. Halaxe da, garai hartan jaiotako hiztunek, asturieraren existentzia soziala bera dela eta, beren belaunaldiko aldaerak dituen baino asturieraren forma indartsuagoekin eta gaztelaniaren hedapenetik babestuago dauden formekin daudelako kontaktuan, adibidez, aurreko belaunaldietan antzeman daitezkeen formak.

Kontua da, beraz, jakitea nola hitz egiten zuten ekonomia industrialaren eta hiri-ekonomiaren zabalkundearen aurretik jaiotakoek, Gerra Zibila piztu baino lehen jaiotakoek, alfabetatze kanpainen agerreraren aurretik jaiotakoek eta komunikabideen garapen handiaren aurretik jaiotakoek. Belaunaldi horiek ez dira hainbeste islatzen 1991eko eta 2002ko inkes-

XX. mendeko erdialdearen hamarkadetan, asturieraren potentzia soziala handia nahikoa zen familia-hizkuntza gisa gaztelania edo beste hizkuntza batzuk zuten hiztunak beretzeko.

Aurretik aipatutako taulak
abiapuntutzat hartuz, %3ko erritmoko hizkuntza-ordezpena dagoela ikus dezakegu: gerra eta gerraostea bitarteko belaunaldietan, gaztelaniazko elebakarren kopurua handitu zen proportzio honekiko: %39,5tik %42,5ra.
Asturierazkoen kopuruak behera egin zuen modu antzekoan (%3,5eko alde; %36tik %32,5ra).

tetan, batez ere kontuan hartzen badugu esperientzia soziolinguistiko konplexuagoa eta eguneratuagoa jasoko luketela jada garai hartan, eta esperientzia horrek beren haur-hizkuntzarekiko pertzepzioa aldatu beharko zuela; beste hitzetan, pertzepzio hori iraindu edo idealizatuko zuela. Ezusteko egoera horietatik at, termino *ante quem* horretatik harago aztertzen saiatu naiz, hain zuzen 1931. urtean lehenengo inkesta ezartzen duen terminoa, bertan agertzen diren zenbakiak analizatuz.

Aurretik aipatutako taulak abiapuntutzat hartuz, %3ko erritmoko hizkuntza-ordezpena dagoela ikus dezakegu: gerra eta gerraostea bitarteko belaunaldietan, gaztelaniazko elebakarren kopurua handitu zen proportzio honekiko: %39,5tik %42,5ra. Asturierazkoen kopuruak behera egin zuen modu antzekoan (%3,5eko alde; %36tik %32,5ra), eta horrela ikus daiteke elebidunei dagozkien datuekin aldiberekotasuna dagoela (%24,5 eta %25). %3ko irristatze hori hamabost urtero aplikatuz gero, honako ikuspegi hau postula genezake 1900. urte inguruan jaiotakoak kontuan hartuz:

3. taula: Lehen hizkuntza haurtzaroan zehar eta etxeko hizkuntza: gaztelania eta elebiduna+elebarra (batez besteko aritmetikoa).

	Gaztelania	Asturiera	Biak
	33,5	39%	27,5

Iturria: 1991. eta 2002 inkestetako datuetan oinarritutako proposamena.

Asturieraz egiten duen %66,5 eta gaztelaniaz egiten duen %61 daukagu. Asturierak, beraz, gerraostean jaiotako gurasoen eta aitona-amonen bi heren inguru beretzen ditu, eta betekizun oso garrantzitsua dauka bai beren etxeko esperientzian, bai beren hizkuntza-kontzientziaren finkapenean, nahiz eta garai hartan hizkuntzak gero eta beherago egin. Llerak 1991ean egindako inkesta garbiaren datuei jarraikiz (sakontasun historiko handiena duena, hain zuzen), bi adin-talde zaharrenen eboluzioa hau izango litzateke:

4. taula: Gerraostean jaiotako gurasoen eta aitona emonen etxeko hizkuntza.

	Gaztelania elebakarra	Asturiera + elebiduna
1931 aurretik jaiotakoak	25	75 (51+24)
1945 aurretik jaiotakoak	33	67 (39+28)

Iturria: 1991. inkestetako datuetan oinarritutako bilketa.

Orokorrean, Lleraren datu *garbiek* asturierari mesede egiten dioten zenbaki guztiz positiboagoak erakusten dizkigute 1991ean, eta, ordea, baita lan honetan antzeman egin den baino hizkuntza-ordezpeneko erritmo handiagoa ere. Izan ere, Llerak 1900. urterako postulatutako egoera ia berdin-berdina iradokitzen du 1931tik 1945era arteko tarterako. Hau da, gaztelaniaren hedapena eta finkapena aurreratzen dugu belaunaldi batean, baina erritmo baxuagoa ezartzen diogu: %3koa hamabost urtero, eta ez %9koa, Lleraren datuek estimatzen dutenez denbora-tarte berdinerako. Zentzuzkoa da gerraurrean zehar asturiar hiztunen inguruko datuak goitik behera zuzentzea, baina ia %10eko hizkuntza-atzerakada egotea hamabost urtero gehiegizkoa izan daiteke XX. mendearen lehen herenaren asturiar soziologiarentzat.³

Kontuan har ditzagun garai hartako erroldek eskainitako beste datu egoki batzuk⁴. 1900ekoak, 627.069 biztanlerekin, hiritarren %23,16 jasotzen du, eta, ordea, baserritarren %76,84. Datu horiek guztiz kontrakoa dira gaur egungoekin konparatuta. Distribuzio hori eta gaztelaniazko elebakartasunaren zein asturiar hiztunen ehunekoak antzekoak dira. Hasteko, hirietako udaletxeak (Oviedo, Gijón...) ez dira soilik *hirietakoak*; izan ere, landaren eta biztanleriaren ehuneko handi bat udaletxe horien parte dira, eta, era berean, hirietako egitura dituzten hainbat herrixkek landa-udaletxeak osatzen dituzte. Gainera, herrixka horietako elite txikien artean, gaztelaniaren hedapenari mesede egiten dioten ohiturak nagusi izan zitezkeen, Caveda edo Munthe autoreek (beste batzuen artean) XIX. mendetik aurrera nabarmendu zuten. Horrez gain, ez genuke iradoki behar garai hartako hiriko biztanleria guztiz gaztelaniaztatuta zegoenik, ia mende bat geroago ikuspegi guztiz zehaztuago bat egiaztatzen baitzen, aurretik ikusi dugunez. Erroldetan islatutako gizarte mota horrek frogatzen du interakzio- eta dependentsia-maila oso handia zegoela hiriaren erdialdeekiko (gaztelaniaren hedapenaren gune birtualak) zein hirietako landa-eremuekiko (non asturieraren hizkuntza-tradizioa nagusi den), eta horrek pentsarazten digu asturieraren presentzia hirietan nahiko indartsua zela. Hori dela eta, kontaktuko egoerei lotutako hipotesiari jarraikiz, iradoki dezakegu hirietan hizkuntza-talka handia dagoela, bai eta kontzientzia bereizgarria mantentzeko baldintza aproposak ere.

Ekonomiari dagokionez, nekazaritza eta abeltzaintza nagusi ziren (%82,1) industria (%8,2) edo zerbitzua (%9,7) bezalako hiriko lanbideen aldean. Datu horiek adierazten dutenez, asturierazko gaitasunaren inguruko datua handitu zen, hizkuntza hori, tradizionalki, ia pribatiboa

**Kontaktuko
egoerei lotutako
hipotesiari
jarraikiz, iradoki
dezakegu
hirietan
hizkuntza-talka
handia dagoela,
bai eta
kontzientzia
bereizgarria
mantentzeko
baldintza
aproposak ere.**

Gaztelania hirugarren sektoreko hizkuntza nagusia izanik, biztanleriaren %10etik hurbil dagoen lastaira estatistikoa egotzi beharko genioke hizkuntzari. %10 hori gaztelaniaren hedapen eta finkapenaren muina zen, eta soziologiaren testuinguruan, hedapen horren iturri nagusia. Meatzaritza (hau da, industria-biztanleriaren %8,2) asturiar hiztunez beteriko muin indartsua izan da; meatzari gehienak baserritik zetozen, eta oso lotuta zeuden landa-munduari.

baitzen sektore horretan. Bestalde, gaztelania hirugarren sektoreko hizkuntza nagusia izanik, biztanleriaren %10etik hurbil dagoen lastaira estatistikoa egotzi beharko genioke hizkuntzari. %10 hori gaztelaniaren hedapen eta finkapenaren muina zen, eta soziologiaren testuinguruan, hedapen horren iturri nagusia. Meatzaritza (hau da, industria-biztanleriaren %8,2) asturiar hiztunez beteriko muin indartsua izan da; meatzari gehienak baserritik zetozen, eta oso lotuta zeuden landa-munduari. Meatzaritza-kultura, ziur asko, meategietara immigratutako biztanleak baretu zituen iturri nagusia izan zen, asturieraren funtzioa, ideologia indartsua duen testuinguru soziologiko batean, klaseko hizkuntzarena baitzen bertan. Antzeko eran, eta Diego Catalánen ustez, industria-muinak Avileseko eremuan egoteak baimendu zuen erdialdeko hainbat konponbide hedatzea mendebaldera, gaztelania bera baino prestigio handiagoko tokiko eredu gisa.

Alfabetizazioari dagokionez, 1900eko erroldak bakarrik bereizten zituen irakurtzen zekiten biztanleak eta irakurtzen eta idazten zekitenak, eta erroldaren arabera, biztanleen %46,7 alfabetatua zen; %55,3, aldiz, analfabetoa. Datu hori garrantzi handikoa da, urte horietan gertatutako gaztelaniaren hedapenak eragina izan baitzuen hezkuntzan. Testuinguru horretan, biztanle elebazarren %40 eta asturieraz hitz egin zezaketen %66,5 egotea estimazio onargarria da, batez ere datu hori landako biztanleriari dagokion datuarekin gurutzatzen bada, kontuan izanda landa-eremuan analfabetismoa nagusi zela.

Hori esanda, azter dezagun berriro aurretik aipatutako behaketa bat. 1946an, Catalánek eta Galmések adierazi zuten Asturiaseko erdialdean hitz egiten zen asturiar estandarra ekialdean finkatu zela, gaztelania baino indar erreferentzial gehiagorekin ere, mendebaldean ikusi berri denez. Idazle horiek fenomeno hori ardaztu zuten hiriko erdialdeekin ongi komunikatutako herriko gazteen artean, eta lehen hezkuntzatik hain haratago ez zihuan prestakuntza-maila zehatz bati lotu zuten. 1925ean jaiotako gazte bat, gutxi gorabehera, 1900. urtean (gure erreferentzia-urtea) jaiotako norbaiten seme-alaba izango zatekeen. Nola azaldu genezake, azken finean, behaketa horren zentzua?

XIX. mendearen amaieratik aurrera, asturiar literaturak gora egin zuen pixka bat, eta egunkari, eskuorri eta liburuxken bidez ezagun bilakatu zen, bai eta hainbat errezitaldi eta antzezpenetan ere. Estetikari begira, literatura mota guztiz ezberdina zen, baina oso popularra, eta, gainera, nolabaiteko kanon jatorra ezarri zuen, XIX. mendeko kostunbrismotik eta XX. mendearen lehen hamarkadetako *erregionalismotik* oso gertu da-

goen *asturiera* denaren identitate-eredua. Oso ezohikoa zen liburuxka horietako 6.000 ale baino gutxiago argitaratzea (García 2004: 193), eta kontuan hartuz alfabetatutako biztanleen ehuneko %46,7koa zela (hau da, 300.000 biztanle baino gutxiago), hedapen-maila nahiko ona inplikatu zuen horrek, bai eta aleak asturieraz argitaratu eta zabaltzeko izugarritzko motibazioa ere.

Beraz, ez da harritzekoa 1946ko gazteek, tokiko aldaeraren bat jatorriz hitz egiteaz gain, hizkuntza-eredu baten erreferentzia gutxi gorabehera estandarizatuaz eta, nola edo hala, prestigiozkoaz jabetzea. Horrek beren hizkuntza-kontzientzia sendotu zuen. Sendotze hori beren oinarritzko irakaskuntza-mailatik zetorren, hain zuzen, eta garai hartan garbiki hiritarrak ziren jarraibide soziokultural zehatz batzuekin zetorren bat. Horrez gain, ezin dugu asturieraren pisu demografikoa ahaztu, oraindik nagusia garai hartan. Ondorioz, urte horretan jaiotakoek, testuinguru tradizioaletik oso urrun dagoen testuinguru batean (50eko eta 60ko hamarkaden testuinguruan) sozializaturik egon arren, hizkuntza-kontzientzia sendo bati eusteko argumentu onak zituzten orduan ere. Handik aurrera, frankismoeko asturiar gizartearen norabideak ez zion, inondik inora, ez asturieraren finkapenari, ez bere garapenari mesederik egin. Jasotako kontzientzia horren sendotasunari esker, baina, azal daiteke (gaztelaniaren hedapenari lotutako presioak eraginda) 70eko hamarkadako asturieraren hizkuntza-mugimenduaren agerrera; izan ere, aurretik aipatutako belaunaldia hamarkada horretan hazi zen.

Gaur egungo Asturiasek hizkuntzaren suspertze-prozesuari buruzko bere istorio propioak sortu ditu poliki-poliki, betiere hainbat jarrera (bai asturieraren normalizazioaren aldekoak, bai hizkuntzaren kontrakoak) legeztatzeko asmoz. Azterketa honetako lehen mailako interesa estimazio guztiz kuantitatiboak egitea da, jakiteko nortzuk dauden egoeraren alde eta nortzuk kontra, edo nortzuk hitz egiten duten edo ez asturiera. Soziolinguistikak gai horiek guztiak modu argi edo ez hain argian landuz joan da, eta gaur egungo hizkuntza-paisaiaren ikuspegi fidagarri bat ekartzea lortu du. Zentzu *imperatibo* hori aurkitzeko, ez genukeen debate publikorako edo gure gizarte- zein hizkuntza-errealitatearen gaikoak ulertzeko sortutako esparru diskurtsibo batetik haratago joan izan beharko. Hala eta guztiz ere, azaleko hurbilketa soil batek garrantzi soziologikoa duten berezko dinamika zehatz batzuk aurkitu ditu asturiarren hizkuntza-bizipenean, debatearen hainbat topiko zalantzan ipintzen dituztenak. Asturiera ez da gaur egun arte ailegatu gizarterako inolako funtziorik ez daukan erreminta gisa, konplot politikoen, mimetismoen

**Frankismoeko
asturiar
gizartearen
norabideak ez
zion, inondik
inora, ez
asturieraren
finkapenari, ez
bere garapenari
mesederik egin.**

edota jokabide faltsuen bidez garatua, eta, horrez gain, asturieraren aldarrikapenaren gaur egungo indarra ez dator bat Asturiaseko hainbat eliteren buruargitasunekin edota buru-ukatzeeekin. Asturiera betidanik egon da han, eta, gaur egun, antzeman daitekeen berezko argia ematen du. Zenbaiten axolagabetasunak ez bazuen argi hori ikusi izan nahi, edo beste batzuen maltzurkeriak argi horien islak erabili nahi bazituen ustekabeko distira batez dohatzeko, hori ez da soziolinguistikari inporta zaion kontua, eta ez da, inondik inora, hizkuntza normalizatzeko estrategia benetan eraginkor bat definitzeko kontu erabilgarria. ●

OKARRAK

1. Hurbil-hurbileko aurrekariari egiten zaio erreferentzia; SADElko inkestaren helburua zen 1985ean gaztelaniaz baina asturiar doinuarekin (%48,6) hitz egiten zutenak eta asturieraz edo bablez (%29,13) hitz egiten zutenak bereiztea.

2. 2002an, etorkinek Asturiaseko biztanleriaren %16,3 osatzen zuten; %13,4 Espainiako beste hainbat tokitik zetorren, eta %2,9 beste herrialde batzuetatik. Etorkin horiei inkesta egiteko, Llera Ramo taldeak kontuan hartu zituen aita eta ama asturiarrak zituzten pertsonen %70, guraso mistoak zituzten pertsonen %14,8 eta gurasoak etorkinak zituzten pertsonen %15 (Llera, 28. orr.). Lan honen arabera, inkestatutakoen %30 inguruk adierazi zuten asturiarra ez zen beste hizkuntza bat erabiltzen zutela etxeko hizkuntza gisa.

3. Hizkuntza-erabilera errealetik haratago, kontuan hartu beharra dago psikologiari lotutako gako bat. XX. mendearen lehenengo herenean (oparotasun erlatiboko garaia Asturiasen) gaztelaniaren instituzionalizazioak aurrera egin zuen hezkuntza-sistema hedakor baten bidez, komunikabideen bidez, aurrera eramandako gizarte- eta politika-mugimenduen bidez, kultura- eta langile-ateneoen bidez, etab. Gaztelaniaren instituzionalizazio gorakorrek ez du inplikatzeko, berez, jendeak gaztelaniaz hitz egitea maiztasun gehiagorekin, baina, ziurrenik, gaztelaniaren hedapenaren pertzepzio psikologiko mehea inplikatzeko du, eta, beraz, bere garaipena gizartean.

4. <http://www.ine.es/inebaseweb/pdfDispacher.do?td=69583&ext=.pdfz>

BIBLIOGRAFIA

Catalán Menéndez-Pidal, Diego (1956). *El asturiano occidental*, in *Romance Philology* 10 (71-92)

Catalán Menéndez-Pidal, Diego & Galmés de Fuentes, Álvaro (1946). *Un límite lingüístico*, in *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares* 2 (196-239).

Caveda y Nava, José (1989). *Colección de poesías en dialecto asturiano*. Uviéu, Alvízoras.

D'Andrés Díaz, Ramón (1993). *Encuesta sociolingüística nuna parroquia asturiana (Deva-Xixón)*. Uviéu, Universidad d'Uviéu.

D'Andrés Díaz, Ramón (2002). *L'asturianu urbanu mínimu. Delles hipótesis*, in *Lletres Asturianas* 81. (21-38).

Fernández Lorences, Taresa (2011). *Alternancia y mestura de códigu asturianu / español: problemes nel determinín de les fronteres llingüístiques*, in *Lengua, ciencia y fronteras*. Uviéu, Universidad d'Uviéu (191-211).

García Fernández, Antón (2004). *Public lecteur, diffusion et thématique*

- dans la litterature en asturien de nos jours*, in *Lengas* 56 (187-208)
- García García, Serafina (2008): *El asturiano en la obra de Ramón Menéndez Pidal (1869-1968) in Cien años de filología asturiana (1906-2006)*. Uviéu, Alvízoras & Trabe (43-68)
- González Riaño, Xosé Antón (1994). *Interferencia lingüística y escuela asturiana*. Uviéu, Academia de la Llingua Asturiana.
- González Riaño, Xosé Antón & García Arias, Xosé Lluís (2006). *Estudiu sociolingüísticu de Lleón*. Uviéu, Academia de la Llingua Asturiana.
- Jovellanos, G. M (1981). *Cartas del viaje de Asturias*. Salinas, Ayalga.
- Llera Ramo, Francisco (1993). *Los asturianos y la lengua asturiana. Estudio sociolingüístico para Asturias, 1991*. Uviéu, Principáu d'Asturies.
- Llera Ramo, Francisco & San Martín Antuña, Pablo (2002). *II Estudio sociolingüístico para Asturias*. Uviéu, Academia de la Llingua Asturiana.
- Llera Ramo, Francisco & San Martín Antuña, Pablo (2005). *L'asturianu en Xixón. Primer encuesta sociolingüística municipal*. Xixón, Ayuntamiento de Xixón.
- Martínez Álvarez, Josefina (1967). *Bable y castellano en el concejo de Oviedo*. Oviedo, Universidad de Oviedo.
- Menéndez García, Manuel (1963). *El Cuarto de los Valles (Un habla del occidente asturiano)*. Oviedo, IDEA.
- Munthe, Ake W:son (1987): *Anotaciones sobre el habla popular de una zona del occidente de Asturias*. Uviéu, Universidá d'Uviéu
- Rodríguez Castellano, Lorenzo (1954). *Aspectos del bable occidental*. Oviedo, IDEA.
- Rodríguez Valdés, Rafael (2009). *Discursos llingüísticos y movimientu obreru na Asturias decimonónica*. Uviéu, Trabe.
- SADEI (1984). *Asturias. Segunda encuesta regional*. Oviedo, Principado de Asturias.
- Viejo Fernández, Xulio (2002). *Sociolingüística y lliteratura asturiana nel sieglu XVII*, in *Actes del ciclu de conferencies La Lliteratura Asturiana nel IV Centenariu d'Antón de Marirreguera*. Uviéu, Principáu d'Asturies. (27-58).
- Weinrich, Uriel (1974). *Languages in contact. Findings and Problems*. Paris-The Hague, Mouton.